



1. SARRERA:

Zergatik egin genero-txosten bat Kontu Orokorrean?

4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, VII. KAPITULUA. AURREKONTUEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA, 26. artikuluan. Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa, besteak beste, adierazten du Bizkaiko Foru Sektorre Publiko osoak genero-ikuspegia txertatu behar duela aurrekontu-prozesuaren maila guztietan.

Arlo eta maila guztietan aurrekontu-arloko plangintza, lanketa, gauzatze eta ebaluazioa hobetuko duten tresnak lantzea barne hartzen du, eta seinalatzen du, beste gai garrantzitsu batzuen artean, aurrekontu-programei esleitutako helburuen betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta **aurrekontu-prozesuan generoa zenbateraino txertatu den neurtzea**.

Kontu Orokorraren Memoriaren barruan genero-txostenaren egokitasuna eztaba daezina da; izan ere, azken hartzailea pertsona fisikoak dira, eta aurrekontu-ekitaldiak eragina du baliabideen eskuragarritasunean eta kontrolean, emakumeentzat eta gizonentzat bereizita.

Honela, genero-txostena Kontu Orokorrean sartzen da 2019tik, Kontu Orokorra Foru Sektorre Publikoaren ondarearen eta ekonomia- eta finantza-egoeraren kontu-emate maila eta aurrekontua gauzatzeko moduaren justifikazioa dela ulertuta.

Aurrekontuen genero-eraginaren ebaluazioa aztertzeke eredu

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuetako genero-eraginaren ebaluazioa gaztelaniazko “3 R”-en azterketa-ereduan oinarritzen da:

- ERREALITATEA (Bizkaiko gizonen eta emakumeen arteko berdintasun edo berdintasunik ezaren egoeraren diagnostikoa),

1. INTRODUCCIÓN:

¿Por qué hacer un informe de género en la Cuenta General?

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, CAPÍTULO VII. PLANIFICACIÓN Y GESTIÓN PRESUPUESTARIA, en su artículo 26. Planificación y gestión presupuestaria, señala entre otras medidas, que todo el Sector Público Foral de Bizkaia ha de incorporar la perspectiva de género en todos los niveles del proceso presupuestario.

Incluye la elaboración de instrumentos que mejoren la planificación, elaboración, ejecución y evaluación en materia presupuestaria en todas las áreas y niveles, y marca entre otras cuestiones relevantes, el seguimiento y evaluación del cumplimiento de los objetivos asignados a los programas presupuestarios y **la medición del grado de incorporación del género en el proceso presupuestario**.

Por tanto, la pertinencia del informe de género dentro de la Memoria de la Cuenta General resulta indiscutible, ya que el grupo destinatario final son personas físicas y el ejercicio presupuestario afecta al acceso y control de los recursos, de una manera diferenciada para mujeres y hombres.

Así, el informe de género se incorpora en la Cuenta General desde 2019, entendiéndose que la Cuenta General es el nivel de rendición de cuentas de la situación patrimonial y económico-financiera del Sector Público Foral y la justificación del modo de ejecución del presupuesto.

Modelo de análisis de evaluación de impacto de género de los Presupuestos

La evaluación de impacto de género de los Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia se basa en el **modelo de análisis de las 3 R**:

- REALIDAD (diagnóstico de la situación de igualdad o desigualdad de hombres y mujeres en la sociedad bizkaína),

AURKIBIDEA ÍNDICE

1. SARRERA: ZERGATIK EGIN GENERO-TXOSTEN BAT KONTU OROKORREAN?	2
1. INTRODUCCIÓN: ¿POR QUÉ HACER UN INFORME DE GÉNERO EN LA CUENTA GENERAL?	
2. GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTU-EREDU BERRIA	4
2. EL NUEVO MODELO DE PRESUPUESTACIÓN CON ENFOQUE DE GÉNERO	
2.1. Zuzeneko inbertsioa eta zeharkako inbertsioa	6
2.1. <i>Inversión directa e inversión transversal</i>	
2.2. Aurrekontu-programen autosailkapena	10
2.2. <i>La autoclasificación de los programas presupuestarios</i>	
2.3. Gaitasunen teoria eta genero-eraginaren azterketa aurrekontuetan	18
2.3. <i>La teoría de las capacidades y el análisis de impacto de género en los presupuestos</i>	
3. 2022KO EKITALDIKO EMAITZEN ANALISIA	21
3. ANÁLISIS DE RESULTADOS DEL EJERCICIO 2022	



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

- ERREPRESENTAZIOA (Sektore Publikoaren eta Foru Administrazio Publikoen maila desberdinetan gizonen eta emakumeen presentziaren inguruko azterketa)
- BALIABIDEAK/EMAITZAK (aurrekontu-programa bakoitzerako baliabideen esleipenaren inguruko azterketa, generoaren ikuspegitik, bai eta generoaren garrantziarekin loturiko jarduketan eta adierazleen inguruko azterketa ere).
- REPRESENTACIÓN (análisis de la presencia de hombres y mujeres en los distintos niveles del Sector Público y Administraciones Públicas Forales)
- RECURSOS/RESULTADOS (análisis desde una perspectiva de género de la asignación de recursos para cada uno de los programas presupuestarios, así como las actuaciones e indicadores en relación con la pertinencia y relevancia de género).

*Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Testuinguruaren Analisiaren txostenak*¹ (2022ko Aurrekontuen Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazio Txostenaren zati gisa argitaratua) 3 R-etako lehenengo biak aurkezten zituen (Errealitatea eta Errepresentazioa), emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa bat jasoz, Foru Aldundiak esku hartzeko eskumenak dituen esparruei buruzko datuekin.

3 R-etako hirugarrena (Baliabideak/Emaitzak) 2022ko Aurrekontuen Foru Arauaren proiektuarekin batera argitaratutako EPIG txostenean² ere aztertu zen.

Orain 2022ko Kontu Orokorrarekin batera aurkezten den genero-txosten honetan, aipatutako baliabideen eta emaitzen azterketan sakondu nahi da, aurrekontu-programen garrantziaren arabera betetze-maila ebaluatuz eta 2022ko aurrekontu-betearazpenaren genero-eraginari buruzko azterketa kualitatiboa aurkeztuz.

Genero-eraginari buruzko txosten honen helburu nagusia aurrekontu-programak genero-ikuspegitik berrikustea da.

Azterketa honen esparruan egindako ebaluazioa ulertzeko, lehenik eta behin 2022ko Aurrekontuetarako abian jarri zen genero-ikuspegidun aurrekontu-eredu berria aurkeztuko dugu:

El informe de *Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia*¹ (publicado como parte del Informe de Evaluación Previa de Impacto de Género de Presupuestos 2022), presentaba las dos primeras de las 3 R (Realidad y Representación), recogiendo un análisis de la situación de mujeres y hombres, con datos referidos a los ámbitos en los que la Diputación Foral tiene competencias de intervención.

La tercera de las 3 R (Recursos/Resultados) se analizó también en el informe EPIG publicado junto al proyecto de Norma Foral de Presupuestos 2022².

En el informe de género que ahora se presenta adjunto a la Cuenta General 2022, se pretende profundizar en dicho análisis de Recursos y Resultados, evaluando el grado de cumplimiento de los programas presupuestarios según su relevancia, así como presentando un análisis cualitativo sobre el impacto de género de la ejecución presupuestaria de 2022.

El objetivo principal de este informe de impacto de género es pues, la revisión de los programas presupuestarios desde el enfoque de género.

Para entender la evaluación realizada en el marco de este análisis, primero presentaremos el nuevo modelo de presupuestación con enfoque de género (PEG) que se puso en marcha para Presupuestos 2022:

¹ [Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Testuinguruaren Analisiaren txostena / Análisis de contexto de mujeres y hombres en Bizkaia](#)

² [Aurrekontuak 2022 - EPIG Txostena / Presupuestos 2022 - Informe EPIG](#)



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

2. Genero-ikuspegia duten aurrekontuen eredu berria

2022ko Aurrekontuak ikuspegi berri bat da Bizkaian genero-ikuspegia duen aurrekontugintzan, 2013tik egindako ibilbide osoa jasotzen duena, eta Berdintasunerako VI. Foru Plana bete-betean sortzeko une estrategikoa aprobetxatzen du; hala, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea Aldundiko sail guztien artean eraiki beharreko konpromiso irmo gisa finkatu da.

Hau da, berdintasuna ezarri behar da, baina kuantifikatu ere egin behar da.

Horretarako, Aldundiaren aurrekontu-programa guzti-guztiak (2021eko % 23,5eko programa pilotutik 2022ko Aurrekontuetako % 100era igarota) genero-ikuspegitik aztertu ziren 2022ko Aurrekontuetan.

Genero-ikuspegiaren analisia aurrekontu-programa guztietako jarduketako ildoetan zabaltzeko asmoz, 2021ean lantalde tekniko bat sortu zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoko berdintasun-langileek, Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu Zerbitzuko langileek eta foru-aurrekontuen programa batzuen arduradunek osatua. Lantalde tekniko hori planteamendu berria eta genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiteko tresna berri bat lantzen hasi zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren programa guztietan aplikatu ahal izango zena.

Hala, 2022ko Aurrekontuetarako sortutako tresna, genero-ikuspegiarekin aurrekontuak egiteko, honetan datza:

Aurrekontu-programa bat kudeatzen duten Bizkaiko Foru Aldundiko administrazio-unitate guztiek bete behar dute galdetegi-fitxa bat, honako hauetarako:

1. Uneko ekitaldiko jarduketako ildo guztiak identifikatzeko (ekitaldian betearazitakoak edo betearazten), aurrekontu-programari lotukoak, eta
2. jarduketako ildo horien analisi bat genero-ikuspegiarekin egiteko, sekuentzia progresibo batean:

2. El nuevo modelo de presupuestación con enfoque de género

Presupuestos 2022 supone todo un nuevo enfoque en la presupuestación con enfoque de género en Bizkaia, que recoge todo el recorrido andado desde 2013, y aprovecha el momento estratégico de estar en plena creación del VI Plan Foral de Igualdad, de modo que la incorporación de la perspectiva de género en los presupuestos se ha afianzado como un compromiso firme a construir entre todos los Departamentos de la Diputación.

Es decir, la igualdad hay que implementarla, pero también hay que cuantificarla.

Para ello, todos y cada uno de los programas presupuestarios de la Diputación (pasando de un programa piloto del 23,5% en 2021 al 100% en Presupuestos 2022) fueron analizados desde la perspectiva de género en los Presupuestos 2022.

Con idea de extender el análisis de la perspectiva de género en las líneas de actuación de todos los programas presupuestarios, en 2021 se creó un Grupo de Trabajo Técnico compuesto por personal de igualdad del Órgano para la Igualdad de Diputación Foral de Bizkaia, personal del Servicio de Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas y responsables de diversos programas presupuestarios forales. Este Grupo Técnico comenzó a elaborar el nuevo planteamiento y la nueva herramienta de Presupuestación con Enfoque de Género, de manera que pudiera aplicarse a todos los programas de Diputación Foral de Bizkaia.

Así, la herramienta creada para Presupuestos 2022 para presupuestar con enfoque de género consiste en:

Todas las unidades administrativas de la Diputación Foral de Bizkaia que gestionan programas presupuestarios adquieren la obligación de rellenar una ficha-cuestionario para:

1. Identificar todas las líneas de actuación del ejercicio en curso (ejecutadas o ejecutándose en el ejercicio) asociadas a su programa presupuestario y
2. Realizar un análisis con perspectiva de género de las mismas, en una secuencia progresiva:



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

a. Egokia da genero-ikuspegia jarduketa-ildoan?

b. Egokia bada, genero-ikuspegia txertatu da jarduketa-ildoan? (zelan?)

c. Eta egokia bada eta genero-ikuspegia txertatu ez bada, egin al daiteke genero-arloko esku-hartzerik etorkizuneko aurrekontuei begira?

Horretarako, administrazio-unitate bakoitzak aurrekontua betearazteko erabiltzen dituen tresna juridikoak aztertzen ditu (funtsean, hiru multzo handitan):

- kontratuak,
- dirulaguntzak,
- hitzarmenak (dirulaguntzarik gabeak), bitarteko propioari egindako enkarguak, kudeaketa-gomendioak, etab.

Fitxa berriak tresna erabilgarria izan nahi du administrazio-unitate bakoitzarentzat. Alde batetik, sailei lagunduko die genero-ikuspegia beren politika publikoetan nola txertatzen duten hausnartzen eta berdintasunaren arloan duten konpromisoa neurtzen, eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasunerako inbertsioak eurotan kuantifikatuko ditu eta genero-ikuspegia duen analisi bat egiteko aukera emango du, bai kualitatiboa, bai kuantitatiboa.

Hala, fitxa berriak, programa bakoitzaren berdintasun-inbertsioen aurreikuspena egiteaz eta hurrengo ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan berdintasun-konpromisoak hartzeaz gainera, uneko ekitaldiko ekintzak aztertuko ditu (betearazitakoak edo betearazten), bai eta hartutako konpromisoak bete diren ere, uneko ekitaldiko aurrekontuaren gaineko hausnarketa bati ekin ahal izateko, ondoren kontu orokorrean islatuko den analisisa egiten laguntzeko.

a. ¿Es pertinente la perspectiva de género en la línea de actuación?

b. De ser pertinente, ¿se ha incorporado perspectiva de género en la misma? (¿cómo?)

c. Y de ser pertinente y no haberse incorporado la perspectiva de género, ¿se puede realizar una intervención de género cara a los presupuestos venideros?

Para ello, cada unidad administrativa analiza los instrumentos jurídicos con los que ejecuta el presupuesto (básicamente, en tres grandes bloques):

- contratos,
- subvenciones,
- convenios (no subvencionales), encargos a medio propio, encomiendas de gestión, etc.

La nueva ficha pretende ser una herramienta útil para cada unidad administrativa, de modo que por una parte ayude a los Departamentos a hacer una reflexión sobre cómo incorporan la perspectiva de género en sus políticas públicas y a medir su compromiso en materia de igualdad, y, por otra parte, que también cuantifique en euros las inversiones en igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia y permita un análisis con enfoque de género, tanto cualitativo como cuantitativo del Presupuesto de gasto.

De esta manera, además de hacer una previsión de las inversiones en igualdad de cada programa y asumir compromisos en igualdad en los Presupuestos de cada ejercicio venidero, analizará las acciones (ya ejecutadas o ejecutándose) del ejercicio en curso y el cumplimiento de los compromisos que se adquirieron, para poder iniciar una reflexión del presupuesto del ejercicio en curso que ayude al análisis posterior reflejado en la Cuenta General.



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

2.1. ZUZENEKO INBERTSIOA ETA ZEHARKAKO INBERTSIOA

Esan bezala, jarduketa-ildoak identifikatu ondoren, administrazio-unitateek genero-egokitasuna aztertu behar dute, bai eta genero-ikuspegia txertatuko duten ala ez ere. Horretarako, berdintasunerako inbertsioa kuantifikatuko dute, eta, 4/2018 Foru Arauaren agindua betez, jarduketa-ildo bakoitzeko honako hauek banakatuko dituzte beren gastu-aurrekontuan:

- Berdintasun-arloko zuzeneko inbertsioa.
- Zeharkako inbertsioa.

**DEFINIZIO KUALITATIBOA: ZER HARTZEN DEN
BERDINTASUN-ARLOKO ZUZENEKO
INBERTSIOTZAT** (4/2005 Legearen³ 3. artikuluan
jasotako printzipio orokorrak kontuan hartuta):

- Emakumeei eta neskatilei berariaz bideratutako zenbatekoa (ekintza positiboaren printzipioa kontuan hartuta),
- Ordaindu gabeko etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gizonen erantzunkidetasuna eta administrazio publikoen erantzunkidetasuna sustatzera bideratutako zenbatekoa (sexuaren arabera rola eta estereotipoak ezabatze printzipioa kontuan hartuta),
- Berdintasunaren aldeko balio-aldaketa bultzatzera bideratutako zenbatekoa (sexuaren arabera rola eta estereotipoak ezabatze printzipioa kontuan hartuta).

Berdintasun-arloko zuzeneko inbertsioak ez du bakarrik jasotzen definizio kualitatibo horrekin bat datozen foru-politiken jarduketa-ildoak zenbaketa; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak bete behar duen araugintza-mandatu bat dago, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian jasotakoa:

2.1. INVERSIÓN DIRECTA E INVERSIÓN TRANSVERSAL

Como hemos dicho, una vez identificadas las líneas de actuación, las unidades administrativas deben analizar la pertinencia de género, y si incorporan o no la perspectiva de género, para lo cual cuantificarán su inversión en igualdad, y obedeciendo los mandatos de la Norma Foral 4/2018, de cada línea de actuación desglosarán en su presupuesto de gasto:

- Inversión directa en igualdad.
- Inversión transversal.

**DEFINICIÓN CUALITATIVA DE QUÉ SE CONSIDERA
INVERSIÓN DIRECTA EN IGUALDAD** (teniendo en
cuenta los principios generales recogidos en el artículo
3 de la Ley 4/2005³):

- Importe destinado específicamente a mujeres y niñas (atendiendo al principio de acción positiva),
- Importe destinado a impulsar la corresponsabilidad de los hombres y la corresponsabilidad de las administraciones públicas en los trabajos domésticos y cuidados no remunerados (atendiendo al principio de eliminación de los roles y estereotipos en función del sexo),
- Importe destinado a impulsar un cambio de valores pro-igualdad (atendiendo al principio de eliminación de los roles y estereotipos en función del sexo).

Pero la inversión directa en igualdad no recoge solamente el cómputo de las líneas de actuación de las políticas forales que encajen en esa definición cualitativa, puesto que existe un mandato normativo que la Diputación Foral de Bizkaia debe cumplir, recogido en la Disposición Adicional Tercera de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres:

³ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea / Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuen foru-arauaren proiektuak urtero zehaztuko ditu emakume eta gizonen berdintasunerako erabiliko diren kredituak, foru-arau honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Planean eta plan sektorialetan ezarritakoarekin bat. Helburua da ekitaldi bakoitzean **Bizkaiko Foru Aldundiaren berezko kudeaketako aurrekontuaren %1 izatea kredituon gutxieneko zenbatekoa**. Ehuneko hori, gainera, berrikusi ahal izango da oinarritzko zerbitzu eta prestazioak baldintzatu ditzaketen ezohiko inguruabar juridikoak edo aurrekontu-arlokoak gertatuz gero.

BERDINTASUN-ARLOKO ZUZENENKO INBERTSIOAREN % 1 KALKULATZEKO OINARRIZKO AURREKONTUA. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN «KUDEAKETA PROPIOKO AURREKONTUA»REN DEFINIZIOA:

4/2018 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontua joko da berdintasun-arloko zuzeneko inbertsioaren % 1 kalkulatzeko oinarritzko aurrekontutzat, zeinak hauek barne hartzen baititu:

- Langileen ordainsariak
- Sailetan erabilgarri dagoena
- Ordainketa globaleko kreditua.

Hura zenbatzeko, administrazio-unitateek beren jarduketa-ildoan barruan identifikatutako zuzeneko inbertsioaz gainera, langileen ordainsariei dagokien kontziliazio- eta erantzukidetasun-gastu guztia hartuko da kontuan, zeina aurrekontuen I. kapituluaren analisiari dagokionez kuantifikatzen baita (eta ez haien sailkapen programatikoan).

DEFINIZIO KUALITATIBOA: ZER HARTZEN DEN DENBERDINTASUN-ARLOKO ZEHARKAKO INBERTSIOTZAT

Genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiteko jauzi kualitatibo nagusia berdintasun-arloko zeharkako inbertsioaren analisian gertatu da.

Lan-prozesu berri horrek, zeina administrazio-unitate guztien jarduketa-ildo bakoitzaren analitik abiatzen baita, aurrekontu-programen kudeaketaren arduradunei

Los proyectos de normas forales de presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia fijarán anualmente los créditos destinados a la igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en esta norma foral, en el plan foral para la igualdad de mujeres y hombres y planes sectoriales, de manera que en cada ejercicio se alcance **un importe mínimo equivalente al 1% del presupuesto de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia**, siendo revisable en circunstancias excepcionales de carácter jurídico y presupuestario que condicionen los servicios y prestaciones básicas.

PRESUPUESTO BASE PARA EL CÁLCULO DEL 1% DE LA INVERSIÓN DIRECTA EN IGUALDAD. DEFINICIÓN DE “PRESUPUESTO DE GESTIÓN PROPIA” DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA:

A efectos de lo dispuesto en la Disposición Adicional Tercera de la Norma Foral 4/2018, se considerará el presupuesto base para el cálculo del 1% de la inversión directa en igualdad el presupuesto de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia, que incluye:

- Remuneración de personal
- Disponible departamental
- Crédito de pago global.

Y para el cómputo del mismo, además de la inversión directa identificada por las unidades administrativas dentro de sus líneas de actuación que antes mencionábamos, se tendrá en cuenta todo el gasto en conciliación y corresponsabilidad correspondiente a las Remuneraciones de personal, que se cuantifica respecto al análisis del Capítulo I de los Presupuestos (y no en la clasificación programática de los mismos).

DEFINICIÓN CUALITATIVA DE QUÉ SE CONSIDERA INVERSIÓN TRANSVERSAL EN IGUALDAD

El gran salto cualitativo en la presupuestación con enfoque de género se produce en el análisis de la inversión transversal en igualdad.

Este nuevo proceso de trabajo partiendo del análisis de cada una de las líneas de actuación de todas las unidades administrativas, ha supuesto un enorme esfuerzo de aprendizaje e integración por parte de las



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

ikasteko eta integratzeko berealdiko ahalegina eskatu die.

Jarduketa-ildoan analisirako, gauzatze-tresnari erreparatu zaio batez ere.

Zeharkako inbertsioaren definizioa oso hertsia izan da:

Kontratuen kasuan, berdintasun-arloko zeharkako inbertsioetat honako hauek bakarrik hartu dira kontuan: kontratuaren xedean bertan genero-ikuspegia txertatzen duten kontratuen zenbatekoa, edo balorazio-irizpide edo betearazte-baldintza berezi gisa genero-ikuspegiari buruzko klausula espezifikoaren bat sartzen duten kontratuena, edo berdinketa hausteko irizpide gisa genero-ikuspegia espezifikoari txertatzen duten kontratuena, edo hura betearazteko emakumeen kontratazioa bultzatzen duten kontratuena, ...

Ez da zeharkako inbertsioetat hartu honako lege hauetan aipatutako agindu juridikoak bakarrik betetzen dituen kontratu baten zenbatekoa (hura betetzea nahitaezkoa baita kontratatatu ahal izateko, eta ez baitio inolako balio erantsirik ematen kontratuari):

- Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL)⁴, 71.1.d artikulua (enpresa jakin batzuetarako berdintasun-plan bat diseinatu eta aplikatzeko betebeharra); hori ez betetzeak kontratatzeko debekua dakar.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako; haren 2.3. artikulua berariaz aipatzen ditu 16. artikulua (estatistiken eta azterlanen egokitzapena), 18.4 artikulua (hizkera ez-sexista erabiltzea) eta 2.4 artikulua. Artikuluok EAEko botere publiko guztiei aplikatzekoak dira, bai eta haietako edozeinekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituzten erakunde pribatuei edo haiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradunei ere.

personas responsables de la gestión de los programas presupuestarios.

El análisis de las líneas de actuación se ha hecho atendiendo, sobre todo, al instrumento de ejecución.

La definición de la inversión transversal ha sido muy taxativa:

En el caso de los contratos, sólo se ha considerado inversión transversal en igualdad el importe de aquellos contratos que introducen la perspectiva de género en el propio objeto del contrato, o bien que introducen alguna cláusula específica de perspectiva de género como criterio de valoración o condición especial de ejecución, o que incorporan de manera específica la perspectiva de género como criterio de desempate, o que favorecen la contratación de mujeres para la ejecución del mismo...

No se ha considerado inversión transversal el importe de un contrato que simplemente cumpla los mandatos jurídicos referidos en las siguientes leyes (puesto que su cumplimiento es preceptivo para poder contratar, y no aporta ningún valor añadido al contrato):

- Ley de Contratos del Sector Público (LCSP)⁴, art. 71.1.d (obligación de diseñar y aplicar un Plan de Igualdad para determinadas empresas) cuyo incumplimiento supone una prohibición para contratar.
- Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, art. 2.3. en su mención expresa a los artículos 16 (adecuación de las estadísticas y estudios) y 18.4 (uso no sexista de todo tipo de lenguaje) y 2.4, o que son de aplicación a todos los poderes públicos vascos, así como a las entidades privadas que suscriban contratos o convenios de colaboración con cualquiera de ellos o sean beneficiarias de ayudas o subvenciones concedidas por ellos.

⁴ 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. / Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

Dirulaguntzen kasuan, halaber, oso irizpide zorrotza aplikatu da, eta ez da hartu berdintasun-arloko zeharkako inbertsioetat 4/2018 Foru Arauan jasotako betebeharrak betetze hutsa. Betebehar horietako bat 25. artikulukoa da, hots, genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazio-txostena egiteko derrigortasuna (GIAEaren txostena egitea betebehar bat da laguntza edo dirulaguntzen deialdi bat arautzen duten foru-dekretuen kasuan); hura betetzeak ez du nahitaez ekarriko dirulaguntzaren zenbatekoa zeharkako inbertsioa izatea. Beste bat 42. artikuluan ezarritakoa da, hots, lehiatzeko debekuei buruzkoa; hain zuzen, deialdi eta oinarri arautzaile guztiek berariaz ezarri behar dute ezein laguntza edo dirulaguntzatan ezin izango dutela parte hartu, ezta onuradun izan ere, pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmorik jaso badute berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, edo emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira haien xedeak edo helburuak, onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak, edo betetzen ez badituzte 4/2005 Legearen III. tituluan, 3/2007 Lege Organikoan⁵ edo 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak. Halaber, inola ere ez dira diruz lagunduko sexua dela-eta diskriminatzailea den jarduerarik edo ekintzarik. Besterik gabe, dirulaguntzen deialdiaren testuan debeku horiek aipatzeak ez du esan nahi dirulaguntzaren zenbatekoak zeharkako inbertsioa dakarrenik.

Dirulaguntza batek bere faseren batean genero-ikuspegia barne hartzen duela jotzeko, honako hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak neurri zuzentzaileak sartzea, dirulaguntza jasotzen duten pertsonekin edo parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoekin lotutako ekintza positiboko irizpideren bat egotea, genero-ikuspegidun proiektua edo jarduera ematearekin lotutako irizpideak egotea, jardueraren onuradun edo erabiltzaileekin lotutako irizpideak, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko emakumeak kontratatzearekin lotutako irizpideak... Azken finean, genero-ikuspegia txertatzeak dirulaguntzari balio erantsia ematea.

En el caso de las subvenciones, igualmente se ha aplicado un criterio muy estricto, y no se ha considerado inversión transversal en igualdad el mero cumplimiento de las obligaciones recogidas en la Norma Foral 4/2018 en su artículo 25 sobre la obligatoriedad de realizar informe de evaluación previa de impacto de género (realizar el informe de EPIG es una obligación en el caso de los Decretos Forales que regulan una convocatoria de ayudas o subvenciones, y el mero hecho de cumplir esa obligación no implicará necesariamente que el importe de la subvención suponga inversión transversal); artículo 42 sobre las prohibiciones para concurrir (ya que todas las convocatorias y bases reguladoras deben establecer expresamente que en ningún caso podrán concurrir ni resultar beneficiarias de ningún tipo de ayudas o subvenciones las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo; cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres, o que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III de la Ley 4/2005, o en la Ley Orgánica 3/2007⁵, o en la propia Norma Foral 4/2018. Tampoco se podrán subvencionar las actividades o acciones que discriminan por razón de sexo. Simplemente señalar estas prohibiciones en el texto de la convocatoria de subvenciones no implica que el importe de la subvención suponga inversión transversal).

Para considerar que una subvención incorpora la perspectiva de género en alguna de sus fases se atenderá a que, por ejemplo, la evaluación previa de impacto de género introduzca medidas correctoras, a que haya algún criterio de acción positiva relacionado con las personas receptoras de la subvención, con las personas físicas o jurídicas concurrentes, criterios relacionados con la prestación del proyecto o actividad con perspectiva de género, criterios relacionados con las personas beneficiarias o usuarias de la actividad, criterios relacionados con la contratación de mujeres para la ejecución de la actividad subvencionada... En definitiva, que la incorporación de la perspectiva de género suponga un valor añadido a la subvención.

⁵ 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa./ Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

Diru-laguntzarik gabeko lankidetzaz hitzarmenen, kudeaketa-gomendioen, bitarteko propioari egindako enkarguen eta bestelako tresnen kasuan, tresnaren zenbatekoa zeharkako inbertsioetat hartzeko, beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak tresnaren idazketa egitea, berdintasun-klausulak ezartzea eta horiek erakundeak sinatu beharreko **betebehar**ak izatea.

Beraz, irizpide zorrotz horiek kontuan hartuta egindako zeharkako inbertsioaren analisiak balio du Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoari emateko Berdintasunerako VI. Foru Planaren esparruan zehaztutako helburuen betetze-mailaren benetako mapa bat eta sailetan *mainstreaming* lana egiteko ibilbide-orria.

2.2. AURREKONTU-PROGRAMEN AUTOSAILKAPENA

Genero-ikuspegia duten aurrekontuak egiteko prozesu berri honen beste alderdi garrantzitsu bat aurrekontu-programak sailkatzeko sinplifikazioa da, sailkapena hiru taldetan murriztu baita:

- A) **A TALDEA.** Beren inbertsio osoa berdintasun-arloko zuzeneko inbertsio gisa identifikatuta daukaten programak (sailkapen horren barruan, 232.113 Emakumea eta familiako esku-hartzea eta 232.114 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna aurrekontu-programak leudeke bakarrik).
- B) **B TALDEA.** Berariazko helburu edo ekintzen artean gai hauek dituzten programak:
- berdintasunaren sustapena,
 - bereizkerien aurkako borroka eta/edo
 - emakume eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea,
 - edo gai horiek haien helburu edo ekintzen artean berariaz jasota ez dauden arren, halakoak sustatzeko jarduketak edo partida espezifikoak detektatzen dituztenak.
- C) **C TALDEA.** Helburu eta ekintzen artean berdintasuna sustatzea, bereizkerien aurka borrokatzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea jasotzen ez duten programak, ez eta halakoak sustatzeko inolako jarduketak edo partidarik detektatzen ez dutenak.

En el caso de los convenios de colaboración no subvencionales, encomiendas de gestión, encargos a medio propio y otros instrumentos, sólo se ha considerado inversión transversal el importe del instrumento en caso de que la Diputación Foral de Bizkaia elabore la redacción del instrumento estableciendo las cláusulas de igualdad como **obligaciones** que deberá suscribir la otra entidad.

Por tanto, el análisis de la inversión transversal atendiendo a estos estrictos criterios, sirve para proporcionar al Órgano para la Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia un mapa real del cumplimiento de los objetivos definidos en el marco del VI Plan Foral para la Igualdad, y la hoja de ruta de su trabajo de *mainstreaming* en los Departamentos.

2.2. LA AUTOCLASIFICACIÓN DE LOS PROGRAMAS PRESUPUESTARIOS

Otro de los aspectos importantes de este nuevo proceso de presupuestación con enfoque de género es la simplificación a la hora de clasificar los programas presupuestarios, reduciendo la clasificación a tres grupos:

- A) **GRUPO A.** Aquellos programas cuya inversión total se identifique como inversión directa en igualdad (dentro de esta clasificación estarían únicamente los programas presupuestarios 232.113 Mujer e intervención familiar y 232.114 Igualdad de Mujeres y Hombres).
- B) **GRUPO B.** Aquellos programas entre cuyos objetivos o acciones se encuentran específicamente estas materias:
- la promoción de la igualdad,
 - la lucha contra las discriminaciones y/o
 - la eliminación de las desigualdades entre mujeres y hombres,
 - o bien no estando esas materias específicamente recogidas entre sus objetivos o acciones, detectan actuaciones o partidas específicas para promoverlas.
- C) **GRUPO C.** Aquellos programas que no incluyen entre sus objetivos y acciones la promoción de la igualdad, la lucha contra las discriminaciones y/o la eliminación de las desigualdades entre mujeres y hombres, ni detectan ninguna actuación o partida para promoverlas.



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

Genero-inpakturik gabeko inbertsioaren barruan datuak behar bezala interpretatzeko, zehaztu behar da, gainera, aurrekontu-programen zati bat (guztiak aztertzen baitira) aurrekontu-programa instrumentalak eta kudeaketa-programak direla (hau da, programa ez-finalistak).

Programa horien helburuak honako hauek dira: antolamendu-, erregulazio- eta plangintza-jarduera orokorrak gauzatzeko baliabideak administratzea; kuantifikatzeko moduko helbururik ezarri ezin zaion jarduera bat egitea; edo programa finalista bati laguntzeko programak dira (hala nola foru-programa informatikoak, edo administrazio orokorraren programetako batzuk, eta Ogasun eta Finantza Sailaren programa gehienak).

Hauek izango lirake C gisa autoklasifikatutako programa gehienak.

Hala ere, autoklasifikazioen banakapenean ikusiko dugunez, zeharkako gisa identifikatutako jarduera-ildoei dagokienez, honako hau gertatuko da:

- badira B taldean autoklasifikatutako programak, beren jarduera-ildoetan genero-egokitasuna identifikatu badute ere, aurrekontuak gauzatzeko tresna guztietan genero-ikuspegia txertatu ezin izan dutenak (oraindik), baina batzuetan bai.

- badira C taldean autoklasifikatutako programak, beren jarduera-ildoetan genero-egokitasuna identifikatu badute ere, aurrekontuak gauzatzeko tresnetan genero-ikuspegia txertatu ezin izan dutenak (oraindik) (adibidez, urte anitzeko hitzarmenak edo kontratuak betearaztea denez, 2022ko Aurrekontuen esparruan dagoeneko lizitatutako agiriak aldatzeko gaitasunik ez dutelako).

Dentro de la inversión sin impacto de género, para interpretar correctamente los datos, hay que matizar, además, que una parte de los programas presupuestarios (dado que se analizan todos) son programas presupuestarios instrumentales y de gestión (es decir, programas no finalistas).

La finalidad de estos programas es la administración de recursos para la ejecución de actividades generales de ordenación, regulación y planificación; la realización de una actividad para la que no se pueden establecer objetivos cuantificables; o bien son el apoyo a un programa finalista (es el caso de los programas informáticos forales o algunos de los programas de Administración General, y también el caso de la mayoría de los programas del Departamento de Hacienda y Finanzas).

Estos serían la mayoría de los programas autoklasificados como C.

Sin embargo, como veremos en el desglose de las autoklasificaciones, respecto a aquellas líneas de actuación identificadas como transversales, veremos que ocurre que:

- hay programas autoklasificados en el grupo B que, si bien sí han identificado la pertinencia de género en sus líneas de actuación, no han podido incorporar (aún) la perspectiva de género en todos los instrumentos de ejecución presupuestaria, aunque sí en algunos.

- hay programas autoklasificados en el grupo C que, si bien sí han identificado la pertinencia de género en sus líneas de actuación, no han podido incorporar (aún) la perspectiva de género en ninguno de sus instrumentos de ejecución presupuestaria (porque al tratarse por ejemplo de ejecución de convenios o contratos plurianuales, no tienen capacidad de cambiar los pliegos ya licitados en el marco de Presupuestos 2022).



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

Nolanahi ere, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta aurrekontuak egiteko lan-prozesuak bere ibilbidea behar duenez, Berdintasun Organoak lehentasuna eman dio **aurrekontu-programen autoklasifikazioa errespetatzeari**, kontuan hartuta horrek erakusten duela, halaber, programa bakoitzaren kudeatzaile arduradunek nola ulertzen duten beren ekintza emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

Administrazio-unitateei aholkularitza eta laguntza emateko behar zehatzak identifikatu diren kasuetan, berariazko lan-ildoak irekitzen ari dira sailekin, lan-prozesuetan genero-ikuspegia modu errealean txertatzen laguntzeko, politika publikoa egiteko moduak aldatzeko eta Bizkaiko Foru Aldundia berdintasuneko administrazio gisa kokatzeko.

Taula honetan programa kopuruaren arabera emaitza orokorra agertzen da.

En cualquier caso, y dado que el proceso de trabajo de presupuestación con enfoque de género necesita su recorrido, el Órgano de Igualdad ha priorizado el **respeto de la autclasificación de los programas presupuestarios**, desde la consideración de que ello también da muestra de cómo entienden las personas gestoras responsables de cada programa su propia acción en materia de igualdad de mujeres y hombres.

En aquellos casos donde se han identificado necesidades concretas de asesoramiento y apoyo a las unidades administrativas, se están abriendo líneas de trabajo específicas con los Departamentos para coadyuvar a la incorporación de la perspectiva de género en los procesos de trabajo de una manera real, que cambie los modos de hacer política pública y sitúe a la Diputación Foral de Bizkaia como Administración igualitaria.

En esta tabla se presenta un resultado global por número de programas.

	1. TALDEA / GRUPO A	2. TALDEA / GRUPO B	3. TALDEA / GRUPO C	Guztira/Total
2022	2 2,35%	51 60,00%	32 37,65%	85

Jarraian, 2022ko aurrekontuetako aurrekontu-programa bakoitzaren autoklasifikazioak aurkezten dira, sailen arabera banakatuta:

A continuación se presentan las autclasificaciones de cada programa presupuestario en Presupuestos 2022, desglosadas por Departamentos:

A TALDEA / GRUPO A
09. ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA / DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD
232.113 Emakumeak eta Familiei laguntzeko / <i>Mujer e intervención familiar</i> 232.114 Emakumeen eta gizonen berdintasuna / <i>Igualdad de mujeres y hombres</i>



2022KO KONTU OROKORRA. GENERO-TXOSTENA
CUENTA GENERAL 2022. INFORME DE GÉNERO

B TALDEA / GRUPO B
02. IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA ZAINTEKO SAILA / DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL
172.103 Babesa eta Ingurumena / <i>Protección y medio ambiente</i> 412.101 Baliabide naturalen artapena eta antolamendua / <i>Conservación y ordenación de recursos naturales</i> 412.102 Abereen ekoizpena eta osasuna / <i>Producción y sanidad animal</i> 419.105 Ehiza-fauna, arrantza-fauna eta fauna basatia / <i>Fauna cinegética, Pesca y Fauna silvestre</i> 456.116 Ingurumen-azpiegiturak / <i>Infraestructuras ambientales</i>
03. GIZARTE EKINTZA SAILA / DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL
